

AUZITEGI GORENAREN EPAI BERRI BATEK ZABALDU EGIN DITU LAN-SUSTRAITZEAGATIK LAN- ETA EGOITZA-BAIMENA ESKATU AHAL IZATEKO KASUAK ([STS 452/2021, MARTXOAREN 25KOA](#))

Orain arte, pertsona batek gutxienez 6 hilabetez modu irregularrean (kontraturik gabe) lan egin duen egoeretarako baino ez zen aurreikusten lan-sustraitzea, eta, aldi berean, gainerako baldintzak betetzen zituen: Espainian 2 urtez egotea eta aurrekari penalik ez izatea.

Epaiaren ondoren, Auzitegiak uste du lan- eta egoitza-baimen baten titular izan daitezkeela, lan-sustraitzeagatik, gutxienez 6 hilabetez modu erregularrean (kontratuarekin) lan egin duten eta edozein arrazoirengatik bizileku-baimena galdu duten pertsonak.

Hori da, adibidez, **asilo-eskatzaileen kasua**. Izapidetzen ari diren bitartean, haien eskaera lanerako aukera ematen dien behin-behineko baimen baten titularrak dira (txartel gorria), baina eskaera ezetsi ondoren, baimen hori galduko dute, eta, ondorioz, lana galduko dute.

Lehen, pertsona horiei egoera erregularizatzeko aukera baino ez zitaien geratzen, sustraitze sozialaren bidez.

Orain, ordea, lan- eta egoitza-baimena eskatu ahal izango dute, gutxienez 6 hilabetez lan egin badute. Egoera hori egiaztatzeko, nahikoa izango da **lan-bizitzaren ziurtagiria** aurkeztea.

Era berean, edozein arrazoirengatik egoitza-baimena galdu duten pertsonak ere egin ahal izango dute (ezin izan badute berritu, adibidez), baldin eta gutxienez 6 hilabetez lan egin behar izatearen baldintza betetzen badute.

Laburbilduz, [lan-sustraitzeagatik lan- eta egoitza-baimena](#) eskatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

Epaiaren ondorioz lan-sustraitzeak baldintza hauek izango ditu:

- 1.- Espainian 2 urtez jarraian egon izana egiaztatzea.
- 2.- Espainian eta jatorrizko herrialdean edo azken 5 urteetan bizi izan den herrialdeetan zigor-aurrekaririk ez izatea.
3. Gutxienez 6 hilabeteko lan-harremanak egon direla frogatzea. Lan-harreman hori frogatzeko, agiri hauetakoren bat nahikoa izango da:

a) Lan-bizitzaren agiria

Auzitegi Gorenaren epaia
barne hartzen duen
berrikuntza

b) Lan Ikuskaritzaren administrazio-ebazpena

c) Ebazpen judiziala



INFORMAZIO GEHIAGO

**LEIOAKO AHOLKULARITZA JURIDIKOKO
ZERBITZUA**

(Aldez aurreko hitzordua eskatu beharko da)

94 480 13 36 gizartezerbitsuak@leioa.net